

...eta kitto!

732 zkia. 2010-IX-17

ASTEKARIA

TOKIKOM



Eibarko Marimendiak Andeetan ere irri

Matrikula Zabalik

Euskara ikasteko

bide zuzena

Eibarko Udal Euzkaltokia
25.
urteurrena

EIBARKO
UDAL
EUSKALTEGIA

Tfnoa: 943 70 09 12
Faxa: 943 82 00 89



IRAZABAL

clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552




ANTONIO MURILLO doktorea



AINHOA ZULUETA doktorea

“Punta-puntako teknologiaz hornitu dugu klinika, bezeroaren erosotasuna helburu”




Zain egoteko harrera-gela erosoak.

Askorentzat ikasturtea hasten den honetan, Irazabal Hartz Klinikak ere bere ibilbidean aro berriari ekin dio, **KLINIKA GOITIK BEHERA ZAHARBERRITUTA.**


Beti ere **BEZEROEN EROSOTASUNA HELBURU**, funtzionaltasuna eta diseinua batu egin dituzte inauguratu berri duten klinikan.

Lehengo toki berean, Julian Etxeberria kalean, **AHOAREN ZAINKETA INTEGRALERAKO** behar diren tratamenduetarako punta-puntako teknologiarekin hornitu dute hartz klinika.


Betiko profesionalak osatzen duten lan-taldea, Antonio Murillo eta Ainhoa Zulueta dokto-reak buruan direla, **ODONTOLOGIA, AHO-KIRURGIA, PERIODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA** arlo-etako edozein premiari erantzuna emateko moduan aurkituko duzue **ITXURABERRITUTAKO IRAZABAL HORTZ KLINIKAN.**




Aho-tratamenduetarako teknologiarik aurreratuenak.



Pazienteen premiak asetzeko moduko tresneria berria ipini dute.



Zure eskura ipintzen dugu gure klinika eta konpromisorik gabeko aurrekontua egingo dizugu. Azkar elkar ikustea espero dugu.



Diseinua eta funtzionaltasuna bat eginik.

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARAGAZKIA:**

Marimendi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

GLOK EGIN.- Jaten betekada egin. "Hainbeste jateko aurrian dituturala, ekin baiño lehen glok egin dot".

GLU-GLU.- Edatean ateratzen den hotsaren onomatopeia. "Pitxarra jaso eta glu-glu, aldi baten ustu eban".

GOBAITT EGIN.- Aspertu. "Hamen nago aldi baten gobaitt egin biharrian".

ESKUTITZAK

SALVADOR MARZANA AMUATEGI

Secundino Loidi (Pampo) Eibarko Txirindulari Elkarteoko presidente ohi eta bazkidea agurtzeko egindako ekitaldi zibilla buruan zekagunian, hillaren 9xan antzeko ekitaldixan agurtu genduan Salvador Marzana Amuategi, hori be gure elkarteko zuzendaritza-kide ohi eta bazkidea. Eibartar eta euskaldun peto-petua eta gizon jatorra, 50. hamarkadan gure elkartia martxan hasi zanian ezinbesteko funziñua bete zeban. Karreretako protokoluan arduria eukitziatz gainera, bestelakuak be egin izan zittuan: Pepita lehen emaztian laguntziakin, Jardiniñetako etxian bokadilluak prestatzen zittuen, poltsetan sartu eta ziklisteri emoteko.

Neu be Jardiniñetan jaixotakua izanda, 60 urte baiño gehixago dira ezagutu nebala. "La Lira" musika-bandako kide, umetan hamaika bidar ikusi genduan gabeko berbenetan klarinetia jotzen. Eibar KE-ko bazkide sortu zanetik, goguan dakat Eibarrek partidu inportante bat irabazi eta, hurrengo egunian, berakin topo egin nebala Untzagan. *Salvador Marzana!* deitu netsan betiko moduan. Eta berak: *Amuategi, Larrañaga, Gisasola!*

– *Zer moduz, Salva?* – *Atzo, ondo.* – *Eta gaur?* Jakiñian neguan ez zeguala oso ondo. – *Gaur? Hobeto!*

Ideal sozialisteri leiala, baiña begirunetsua beste guztiekin, eibartarra beste gauza guztien gainetik, goian bego eta agur bero bat, Salvador Marzana Amuategi Larrañaga Gisasola.

Besarkada berezi bat nere lagun Roberri.

JOSE ARANBERRI (EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA)

NIK EZ DUT EZER ULERTZEN

Astearte goiza. Berri txarrak irratian. Berriz ere atxilotu mordoia. Bat eibartarra. Zer dela eta? Badi-rudi epaileak Ekineko kide dela dioela. Eta, irratian esan dutenez, hori "ETArek komisario" izatea omen da. Ezker abertzalekoak omen dira atxilotu guztiak. Ez dakit oraingoan zein erakunde ilegal berregiteko ahaleginetan ari omen ziren.

Orain dela hamar egun ETak sueten berri bat iragarri zuen. Politiko profesional batzuen esanetan, oraingoan ezker abertzalearen aginduz etorri omen da suetena eta ez ETAK berak erabakita. Eta hori ona dela diote politiko profesional horiek. Ona dela ezker abertzaleak inziatiba hartu eta behingoz ETA bere aginduetara jartzea. Orduan... Zergatik atxilotu dituzte ezker abertzaleko bederlatzi lagun? ETari suetena eskatzearen? Ez dut ulertzen. Edo bai?

Eibarren Ainiatz ezagutzen dugunok badakigu zelakoa den eraman duten jendea. Badakigu Ainiatz bezalako pertsona langile eta jatorrak zelako beldurra ematen dieten sasidemokratei. Horregatik izan da. Behar bada hasi naiz zerbait ulertzen.

Animo eta aurrera atxilotu eta euren familia eta lagunei.

EDURNE

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Alemaniako demokrazia, oso gaztea izan arren, Espainiakoa baino askoz egonkorragoa da. II. Mundu Gerraren amaieran, han ordubete egin zuten lan Estatutako. Bultzatu hori hemen! Benetako demokrazia oso lotuta dago herri baten garapen mailarekin. Gazteen artean ere, langabezia kopurua Espinian %40tik gora denean, logikak dio neska-mutil horiek kalera irten beharko zutelara oihuka; baina, iraultzaileak ez direnez... botilioa egingo dute, Somaliara joan eta porro bat erre. Besterik ezi!"

(Santiago Niño, ekonomilaria)

"Zoragarriak garela pentsatzea ez da akatsa, baina... Kataluniarrek, esaterako, castells-ak egiten dituzte, talde lana, non behekoek ondo batuta eta helduta egon behar diren igo behar dutenei eusteko. Guk, aldiz, apostu egiten dugu nork altxatu harritzar handiena, lehia dagokigu gehiago. Katalunian, antzerki talde bat sortzen bada, ikustera joango dira; idazle baten kasuan, bere liburua erosi dute. Hemen, idazle edo pintore berri baten aurrean, ingurukoek sekulakoak eta bi esango dute"

(Toti Martínez de Lezea, idazlea)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

LAN ESKANTZA

Udalak ofizial mailako arotz lanpostu bat aldi baterako betetzeko deialdia egin du. Eskaerak aurkezteko azken eguna irailak 23 (egun hori barne) izango da eta bete beharreko baldintzak Pegoran eskuratu daitezke edo, bestela, Udalaren web orrian. Eskaerak Pegoran jasoko dituzte.

GRIPEAREN TXERTOA

Gripearen kontrako txertaketa-kanpaina irailaren 20tik urriaren 30 bitartean egingo da. Urteroko moduan, 65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoak dituztenei zuzendutako kanpaina izango da eta, txertoa jarri ahal izateko, alde aurretik ordua eskatu beharko da, bakoitzari dagokion zentruan (Torrekuako telefono zenbakia 943032650 da eta anbulategikoa, berriz, 943032500). Zentrua joaterik ez badago, erizainarekin harremanetan jarri behar da.

SAUTSIKO BIALA

Saratsuegiko etxebizitza berriak eta Iparragirre kalea batzen dituen errepide berria erabat amaituta eta marxa betean dagoela adierazi dute aste honetan bertan alkatetzatik helarazitako oharrean. Zatika zabaltzen joan diren errepidearen aurrekontuak 2'5 milioi euroak gainditu ditu azkenean eta Udalak eta Saratsuegiko etxebizitzaren sustatzaileak ordaindu dituzte beharrak.

DYAren jardunaldi berezixa domekan

GIPUZKOAKO DYAK BERE JARDUERIA HERRITTARRERI GERTURATZEKO ASMUAREKIN JARDUNALDI BEREZIXA ANTOLATU DAU DOMEKARAKO. Egund osorako programaziñua preparau dabe, Txaltxa Zelaixan 11.00etan hasi eta 19.00ak arte garatzeko. Batetik, DYAk bere sorospenetan erabiltzen dittuan ibilgailu eta baliabidiak erakusketa batian ezagutzeko aukeria eukiko dau jendiak; tartian Eibarko ordezkartzak herritarrak emondako diruari esker eskuratu barri daben anbulantzia ikusteko aukeria egongo da. Horrekin batera rokodromo txiki bat egongo da, "ausartek mendiko erreskatian erabiltzen diran teknike-tako batzuk praktikatzeko" eta tirolina batetik zintzilikatzeko aukeria be eskinduko dabe. Bide-segurtasuna lantzeko, barriz, umiak patifeekin zein bizikletekin ibiltzeko moduko zirkuitua egongo da martxan eta txikixenendako txapak, marrazkixak





Euren jardunaren barri emongo detse DYAk herritarreri.


eta bestelakuak egitteko taillarrak antolatu dittue. 16.30xetan kale-animaziñua erabilliko dabe sorospenak erakusteko eta 18.00etan, jardunaldixa agurtzeko, erreskate baten inguruko simulakrua egitteko asmua dake. Arterietako tensiñua neurtzeko gunia, dendia eta beste hainbat be egongo dira martxan.

López de Guereñu zinegotzixa hil da

MIGUEL LÓPEZ DE GUEREÑU EGO IBARRA BATZORDEKO PRESIDENTIA EGUAZTEN GABIAN HIL ZAN, 47 urterekin, luzaruan gaixorik egon ondoren. Historian lizenziaua izan arren, Dbnet informatika arloko enpresia sortu eban. 2003az geroztik zan Eibarko Udaleko zinegotzi eta harrezkero hainbat kargo bete zittuan alderdi sozialistako kidia zanak: hasieran Informatika, Merkataritza eta Industria sailletako buru izan zan, 2007xan Obrak sailaren arduria hartu eban bere gain eta aurten Ego Ibarra-k batzordeburu izatera pasau zan eta azken momenturaino jardun dau biharrian bertan. Atzo agurtu eban lagun eta famelikuak, Txaltxa Zelaiko auditorixuan egindako hilleta zibillian.

**17 milioi euro Erisonorako**

AURREKO BARIXAKUAN GOBERNU BATZORDIAN GAIXA AZTERTU ETA GERO, Udalak Erisonon egoitza barrixa egitteko lizentzia eskindu detsa Tekniker fundaziñuari. Enpresak presentau daben proiektuan, egoitza barrixak 18 metroko alturia eukiko dau eta 13.570 metro karratuko azaleria beteko dau. Horrez gain, 250 automobil aparkatzeko tokixa atonduko dabe. Aittatutako biharrekin amaitzian, 30 enpresatik gora hartzeko moduko Parke Teknologikua erakitziari ekiteko asmua dake.

**JOSE CRUZ LAHIDALGA RUIZ DE LUZURIAGA**

2010eko abuztuaren 7an hil zen,
90 urterekin

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hilleta-elizkizunera joan zinetenoi.



anzorik arzo



Udalbiltzaren inguruko mozioa plenora

ASTELEHENEAN 19.00-ETAN PLENOA EGINGO DA UDALBILTZAREAN, PUNTU BAKARRAREKIN: Udalbiltzaren Eibarko Babes Taldeak aurkeztutako mozioa (ordu erdi lehenago Untzagan elkarretaratzea dago deituta). Udalbiltzaren kontrako epaiketa aurtengo uztailan abiatu zen eta instituzioa bera epaitzeaz gain 22 lagun prozesatzen dihardute. Babes taldeak “bidegabekeritzat” jotzen du epaiketa. Ehundaka sinadura jasotzeaz gain, hainbat eragileren atxikimendua, maila pertsonalean zein taldeka jasotzen dihardute eta aldizkariaren erredakzioa ixteko orduan, besteak beste, hauek ziren Eibarren mozioarekin bat egin zutenetako batzuk: ELA eta LAB sindikatuak, EA, Aralar eta Ezker Abertzalea alderdi politikok, Matrallako Irratia, Arrate eskubaloi taldea, Su TA Gar taldeko kideak, Kokein, Tallarra gaztetxea, Klub Deportiboko Kultura Batzordea, Amañako Jai Batzordea, EHE, AEK-ko irakasleak...

Bestalde Arrateko jaietan egin zuten zozketan saritutako zenbaki 205 izan da. Zenbaki hori duenak Monteka tabernara jo behar du saria jasotzera.



Ariznabarreta askatzeko mobilizazioak

ASTE HONETAN GUARDIA ZIBILAK EGINDAKO OPERAZIOAN ATXILOTU ZITUZTEN LAGUNEN ARTEAN

Aniaz Ariznabarreta eibartarra dago. Kantabriako Noja herrian atxilotu zuen poliziak, dena bederatzi lagun atxilotu ekarri duen operazioan, Ekinen zuzendaritzako kide izatea leporatuta. Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo (Kantabria eta Valentzia) egindako operazioa Fernando Grande-Marlaska epaileak zuzendu du eta tortura edo tratu

txarrak saihesteko neurriak hartzeko egindako eskaera guztiak atzera bota ditu. Martitzenaz geroztik hainbat mobilizazio egin dira atxilotutako herrietan, eta inkomunikazioak jarraitzen duen bitartean mobilizazioekin jarraituko dute. Gaur 19.30etan Untzagan batzeko deialdia egin dute eta bihar, berriz, Donostian manifestazioa abiatuko da 17.00etan (bertara joateko autobusa 16.00etan Ego Gaietik irtengo da, izena eman behar da aurretik Montekan).



Matsaria berritzearen alde

Ezker Batua Berdeak alderdiko Eli Gómez zinegotziak eskaera aurkeztu du, irailan Hirigintzaren Batzorde Aholkulariak egingo duen bileran aztertuko diren gai-ordenean autobus geltokiaren etorkizuna sar dezaten.

Proiektu horren etorkizunaren inguruan eztabaida lehenbailehen piztea bilatzen du Gómezek, sor daitezkeen proposamenen inguruko ebaluaketa egin ahal izateko, *“beti ere proposamen serioa, ekonomikoki bideragarria eta eibartarren premiei modurik egokienean erantzungo diona lortzeko helburuari jarraituta”*.

Ildo horretan, bera ordezkatzeko duen alderdiak Matsaria guztiz berritzearen alde egoten jarraitzen duela gogoratu nahi izan du eta, orain dela hilabete batzuk egindako proposamenaren harira, autobus-geltokia bertan egitearen aldekoa dela. Autobus geltokiarentzat ez ezik, PSE-EE alderdiak proposatzen duen Ospitala hartzeko egokitzat jotzen du Matsaria inguru hori: *“Jarraitzen dugun helburua, Matsariak behar duen itxuraldaketari bidea zabaltzeaz gain, garrabide publikoen zentralizazioa eta indartzea da”*.

Bestalde, Udalak diru-laguntza bat galdu duela salatu du Gómezek, *“epeaz kanpo ibiltzearen”*. Diru-laguntza hori ia 18.000 eurokoa zen eta herriko argietan aurrezteko planaren proiektu bati dagokio.

eibar kaleka

Ipurua kalea

Azaleran bereziki txikia ez den arren, Ipurua kalean hiru pegora baino ez dago eta horietako bat kalearen izen berbera duen foball zelaiari dagokio. Hala ere, kalea izendatzeaz gain, Ipurua izena erabiltzen da inguru guztiarentzat, hau da, inguruko kale eta auzoentzat.

Pegora kopurua: 3.

Erroldatutakoak: 33.



asteko

4.396

datua

ikaslek ekin zetsen ikasturtiari Arrate egunaren bixamonan.

Haur Hezkuntzan hasi eta Batxilergo zein Lanbide Heziketaraïñoko ikasliak dira kopuru horretan islatutakuak. lazko datuekin konparauta, adin tarte horretako ikaslien kopuruak %2'83 egin dau gora ikasturte honetan.



Sagardo Egunerako laguntasun eske

URRIAREN 2-XAN EGINGO DA SAGARDO EGUNA, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN ESKUTIK. laz hasittako bidia jarraituta, egun osoko ospakizuna izango da eta goizez zein arratsaldez ekitaldiak garatzeko asmua dake antolatzailiak. Danak ondo urtetzeko bihar haundixa egin biharko danez, egun

horretan laguntzeko prest dagan jendiari eurekin harremanetan ipintzeko eskatu nahi detse, beso zabalik hartuko dittue-eta. Antolatzailiekin kontaktuan ipintzeko 943206776 telefonora deitu leike, elkarte@etakitto.com helbidera idatzi edo, bestela, zuzenian bulegotik pasau (Urkizu, 11 solairuartea).

El Casco-ko bihargiñak protestan

HILLAREN 6-XAN ETA 7-XAN ELKARRETARATZIA EGIÑ EBEN EL CASCO (OLAVE, SOLOZABAL Y CIA.) ENPRESAKO BIHARGIÑAK. Grapagailluak eta bulegorako beste hainbat gaillu egitten dittuan lantegixak urritik aurrera Elgetan izango dau egoitza, oiñ arte Blas Etxeberria kalia izan daben lokalaren atiak behinbetiko itxita. Enpresan biha-



Elgetara juateko garraibidiak eskatu dittue El Casco-ko bihargiñak. / SILBIA HERNANDEZ

rrian diharduen 31 lagunak Elgetara juateko euren lan-ordutegixarekin bat egitten daben garraibidia ipintzeko eskaeria

egin detse zuzendaritzako kideri, "automobilik ez dakanak Elgetara biharrera juateko modurik ez dakalako".


Agur Salvador Marzanari

ARRATE EGUNAREN BEZPERAN HILZAN SALVADOR MARZANA, 92 URTEREKIN. Sasoiko beste eibartar batzurekin batera Errepublikaren alde borrokan jardundakua, Akilino Amuategi bihargiñen mugimenduko hizlari ezagunaren loiba zanak bizitza osuan heldu zetsan pentsakera sozialistari. Musika munduarekin be lotura haundixa euki eban, ume-umetatik musikazale amorratua izan zan eta. Hainbat musika bandatan parte hartu eban (La Romeral, Musika Banda Munizipalian, Los Rebeldes, La Lira...) klarinetia jotzen. Txaltxa Zelaiko auditorixuan egindako ekitaldi zibillian agurtu eben famelixakuak, bere lagun eta ezagun morduarekin batera.



Tren geltoki barrirako 14 hautagai


ESTAZIÑO KALEKO TREN GELTOKIXA BARRITZEKO BIHARRAK URTE HONEN AMAIERAN HASTEKUAK DIRA eta honezkero 14 enpresak euren proposamena presentau dabe biharrak zeifiek egingo dittuan erabagitzeko deialdixari erantzunez. Biharrak 3 millioi euroko aurrekontua dake eta, aurreikusittakua arabera, 15 hillebetian amaittuta egongo dira (2012ko apirilla aldera). Estaziñuaren akzesibilidadia hobetzia billatzen dabe biharrok eta barrualdian igerriko dira aldaketak, gaur egunian ikusten dogun fatxadiari eusteko asmua dake eta. Bestalde, estaziñua barrizatzeke biharrian diharduen bittartian, behin-behiñeko geralekua erabilli biharko dau jendiak.



MIGUEL LOPEZ DE GEREÑU


Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu ahaztuko

Bihotzez IMHko zure lagunak



5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



bai
euskarari

Euskaraz lan egiteak motshaz on pizten du

Euskaraz kirola gehiago gozatzen da

Euskaraz aritzeak konfiantza ematen die bezeroei

Euskaraz negozio hobek egin daitezke

ziurtagieraren **bai**
943 43 05 28 / 05 64 25 60 41 baieuskaraeri.org

balioa eta berrikuntza

10
URTE

1.500 entitate baino gehiago ziur daude

Herriko idazlien uzta jasotzeko sasoia

Eibarren zerrenda luza osatzen dabe noizbaitten mota bateko edo besteko liburuak kaleratu dabena. Ezagunaguak batzuk, bestiak ez hainbeste, baiña eziñegon horrek bultzatutakuak ez dagoz geldirik. Gure herrikidiak egiten dabena uzta jasotzeko sasoi aproposa izan leike oingua: datozen hillabetietan aurkeztuko dira lan batzuk eta beste batzuk kalia dagoz honezkeru.

ASIER SERRANO ez da sormen ibilbidetik kanpo denbora askorik ematen daben horietakua. *Erlojugilea* egittia nekosua egin jakon baiña, halanda be, *“trilogia baten bigarren zati horrek bere mundu literarixua biltzen hasteko urratsa izan zan”*. *Hiri gorritik* poemarixuak trilogian agertzen dan *“mundu imajinarixo, baiña*



1946xan jaixotako Mireia Arrate urtiak dira Bartzelonan bizi dala eta, ipuin eta relatuak idatzi eta gero, 2005ian hasi zan hamendik gitxira Portalean kalerauko dabena nobelia egittien. Zuzenbidian lizentziatua, idaztiari emona dago.

haiñ erreala” dan giro hori deskribatzen dau. Bere berbetan, *“maratoi gogor baten ostian egin biharreko biaje atsegiña”* izan da poema liburu.

Disfratau gura izan dau, *“tonu eta idazkera barrixaren billa”*. Gauzak zelan esan baiño, nahixago izan dau *“oiñarrizko ideien defentsa egiñ”*; hortxe billau dau liburuaren funtsa. Ideia konplexuak adierazi nahi izan dittu; hori bai, *“errazkerixetan jausi barik: modu simplean esan eta irakurlia konplize bihurtzeraiño”*. Sujerentziak betetako liburuan, *“danok ezagutzen dittugun sentimendu unibersalak”* eszenatoki konkretuetara eraman dittu papellian. Non kokatuko dau, baiña, bere hiri gorrixa irakorliak? *“Iruditeri krudela da liburuarena, baiña sufrimendu hori ez da debaldekoa; irakurlari dagokixo miñ hori nondik datorren deszifratzia”*.

Hamabost urte dira *Bada hiri gorri bat* idatzi zebanetik eta *“poemarixua horren nolabaitteko jarraipentzat dakat”*, diño Serranok. Liburu haren utopiatik, oinguan bertako biztanliak dira mintzatzen diranak. Konparazi-



1975ian jaixotako Asier Serranok urriaren 19xan aurkeztuko dau “Hiri gorritik” poemarixua. Beste hainbat asmo be badittu LHko irakasle honek. Musikan bidia egindakua dogu eta baita nobelagintzan eta poesian be.

ño ironikua be egin desku: *“Bikote baten bizitza kontatzia morokua da: lehen liburuan bikotiarengandik espero dana kontatzen da; bigarrenian, oster, gehixegi ezagutzen dan bikotiarekin bizitza pasatzera kondanatuta daganaren miña”*.

Hurrengo proiektuengaittik galdetuta, urtia amaittu aurretik *“sorpresa pare bat emoteko moduan”* ikusten dau bere burua. Bittartian, beste poema bilduma bat idazten dihardu, *“beste estilo batzuk ensaizatzen”*. Musikarekin eta literaturarekin lotutako eskintza tentagarriak be jaso dittu, baiña *“erreflexiñorako tartia”* bihar dabela diosku Asierrek.

MIREIA ARRATEK buruan zekan proiektua kaleratu dau, *“askotan gerorako lagatakua”*. Idazteko kemena *“arlu ekonomikua behingoz ziurtatuta izatian”* berreganatu dau, idaztetik bizitzia ixa eziñezkua dalako: *“Idazle gehixenak beste lan batzurekin, hitzaldixekin... tartekatzen dittue euren liburuak”*. Horregaittik, *El año de los mil cafés* prisarik gabe idaztittakua dogu, obligaziñorik gabe, *“gogua”* zekalako bakarrik. Onartzen dau berandu hasi dala idazten, baiña siñestuta dago oin dala une egokixena bide horri heltzeko.


Lau urte emon dittu bere lehelengo nobela amaittu arte, baiña *“konzientziak egindako lanaren ondorixua danez”*, ez jako be luze egiñ. Arratek uste dau idazliak ordu asko sartu bihar dittuala ordenadore aurrian, *“horrek egittien dau-eta lan bat bihar dan morokua izatia”*. Bihar dan moduan egitte hori, gaiñera, *“eibartarron izaeriarekin bat dator; hori askotan entzun dogu, ezta?”*, diño berak.

El año de los mil cafés-ek lau ahots fokalizatu erabiltzen dittu *“giza-harremanen konplejidadia, bikotiena batez be, azalera etaratzeko”*. Laura protagonista nagusixenak aurre egin biharko detsa gabetik goizera etorriko jakon gertakizunari: *“50 urte bueltan dabillen emakumia da, errealdade barrixari aurre egin biharko detsana. Ironia, eszeptizismua eta aldarte ona erabi-*

MAIKA SAN VICENTE MURO (2010-IX-6)

**ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira
GURE ARTEAN.**

Zurø koadrilakoak



Illo dattu horretarako. Indartsua da, bai, baita sentibera be batzuetan; halanda be, asma-tuko dau erabagixa hartzeko baloriak jokuan ipintzen dittuenian". Irakurlego zabala ikusten dau Mireiak egindako liburua-ren aurrian.

Eta, hemendik aurrera, zer? "Beste hogei urterako, idazten jarraitzia. Gerokua, gero pentsatuko dot": hori da idazle barrixaren filosofixia.

JUAN GOMEZ "TXONTA"
Jhandik eta hamendik hartutako testuak biltzen hasi zan oin dala urte batzuk. Estilo danetakuak ziran, baita "periodikuetatik etaratako kutsu zientifikoko barrixak be". Zelan ez, poesiak eta zitak tokixa hartzen juan ziran eta "folio bateko lau

orrialdekin hasi eta, hamarrekkin, 40 orrialdekua osatzera kuan" kaleratzia be pentsau eban. Bere arduretako bat da jendia irakortzera "afizionatzia". Baiña ez dago hori bakarrik: testuak selekzionatutakuak izatian, jendiak buruari bueltak emotia be billatzen dau bere hirugarren liburuxka kalerau daben Gómezek.

Relatos, versos y otras historias 2000. urtian daka bere prologua, hasierako testuak kalerau zittuanian. El síndrome del milenio daka azpitulo moduan. Ez da metodikua; sasoiak izaten dattu inplikatura eta "hillabetiak lasaitxuago hartzen ditudanak". Hori bai, "aurretik pentsatutako biharra da neria", diosku. Urtekin konfiantza hartu dau eta "fanzineak indarra".




1960xan jaixotako Juan Manuel Gómezek aurretik be kalerau izan dattu beste rekopilatorixo bi. Aurtenguak aurrekueri jarraitzen detse: hainbat ikutuko relato, berso eta historixekin, irakortzera ohittuta ez daguazanak liburuetara ohitzeko.

25 urtetik beherakuen Eibar-ko relatuen konkurso batian akzesita eskurau eban eta gauza bera Ermuko poesia lehiaketa batian: "Akzesitetatik ez naiz pasau; nire patua izango da". Oingo liburua maiatzian kalerau eban eta iazko Liburu Azokan be hor izan zan "Ayerbenian". Gauza kuriosuak aurkittu leikez holako relatueta, bere "Galiziako amonaren cántigak tartian" eta batutako poesiekin "poesiaren historia txikixa" be egindakua dogu Juan.

www.ediciones.tleo.es helbidian izango dozue bere berri. Gustora hartuko zaittue hor mundura zabalik dagan Txonta "barri transmisoriak".

Editorien billa be badira



Jose Agustin Larrañagak serixo hartu dau gure herriko pelotarixen bizitza eta datuak jasotzia. Horren lekuko da Eibar bihillabetekarixan alero kaleratzen daben Eibarko izena hortik zabaldu daben pelotarixen nondik-norakuak: raketista, zestapuntista eta eskuzko pelotarixen ibilbidia batek jaittekotan, Larrañaga da hori. Aurten betetzen dira "Eibarko Txikito" jaixo zala 150 urte eta, hori aprobetxatuta, bere kirol biografixa prestau dau Jose Agustinek. Baiña, kaleratzeko, editoria bihar!

Egoeria berian daka beste lan bat: puntista haundixa izan zan Marcelino aittaren lanbiografikua. 300 orrialdetik gora dake liburu bixak eta oso ondo islatzen dabe sasoi bateko frontoietako girua.

Javier Martín Lapeyrak, bestalde, *Evolución de la plaza de Unzaga de Eibar* lana daka eginda, editoriarene billa hau be. Formatu biko lana egin dau: A1 tamañaiko posterra batetik, arkatzarekin egindako sei marrazkirekin; eta 40 orrialdeko libretua bestia, hainbat datu eta komentariorekin.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteko HAURRAK ETA GAZTEAK Arloan ZUZENDARIA BEHAR DA

- Lanaldi osoan jarduteko eta berehala hasteko.
- Eskatzen da:
 - Haur eta gazteen aisialdian formazioa eta esperientzia izatea. Begirale-bitulua beharrezkoa da.
 - Elkartegintza eta euskalgintza ezagutzea
- Baloratuko da:
 - Debabarrena bailarakoa izatea.

Curriculumak bidaltzeko epea irailaren 21a arte egongo da zabalik (alsia.eus/akaduntzen@elgoibarkoizarra.com). Informazio gehiago: 943 741 826 (Idoia)



IGOITZA NAGUSIA
Bilburiata 20 - beheko eskua

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa labea
Egoibaren (Signo poligonoan)
Partikela: multo eta oiguri oniei zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urturianoak eskelak
Euskal Herri osoa ospitaleen hortzen zerbitzu
Nazio eta Nazioarteko iruzkiak

Mugica Ehorzketa
Errozketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



Pagoaga famelixia, gaur egun desagertuta dagan Arrateballeko Pagua basarrixari lotutakua. Famelixa horretakua izan zan Antonio Pagoaga, gerra osteko politikorik inportantienetakua. Famelixa horretako ondorengiak Argentinan bizi dira gaur egun eta baita Bergaran be beste batzuk. Pagoaga bat izan zan be, Ixua-Arrate tramua amaitsu barik oindiokan, gurutzeraino auto batekin igotzia lortu eban lehelengua. 1927ko iraillaren 7xa zan Ignacio Pagoaga bere Peugeot-arekin goixa lortu ebanian.

Eibar Bizkaian sartzea erabagi ebenian

1794 URTIAN IZAN ZAN. Urte hartako abuztiaren 21ian erabagi eben Eibarren agintzen ebenak hirixa Gipuzkuatik banatu eta Bizkaian sartzia. Izan be, sasoi hartan Espainiak eraso egin zetsan Frantzia iraultzaillari, eta Frantzia Gipuzkuako Diputaziñuarekin hartu-emonetan jarri zan, herrialdia Parisen babesian jartzeko. Hori ikusitta, Eibarko jauntxuak Espainiaren alde borrokatzia eta, gerrak iraungo eban bittartian, Bizkaian sartzia erabagi eben.

Eboluziño demografikua

Oin dala 32 urte jo genduan topia Eibarren eta, ordutik hona, 12.000 lagun galdu dittu herrixak. 660 urte dira herrixa sortu ebela eta, gitxiña-gitxiña, une hartatik bertatik juan zan hazten. XIX. mende hasieran, dana dala, gaixotasunak tarteko, populaziñua zeozer jausi zan. Mende horren amaieran, XX.ian sartziarekin bat, asko hasi zan barriro; gorako martxa hori, baiña, gerra zibillarekin atzerapauso haundixa izan zeban, herrixa birrinduta geratziaz gain: populaziñuaren herena galdu eban sasoi hartan. 1950. hamarkadian goranzko ikaragarritzko jauzixa emon eban barriro, urtebetian bakarrik kanpotik etorritako ixa 5.000 la-

gun gehixago hartuta (1955ian biztanlien kopuruaren laurdengan egiñ eban gora). Olatu horrek hainbat arlo aldatu zittuan herrixan; tartian, euskeriaren galtzia be ekarri eban. Handik urte gitxira, 1957xan, egindako ikerketa batek honaiño etorritako inmigrante ofizialak (asko ez eguzen zentsatuta) nondik zetozen aztertu zittuan: horko laurdena ingurutik, Gipuzkuatik eta Bizkaitik zetozen, baiña estatu osotik etorri jakun jendia. Orduko hartan 200 bat ziran atzerriarrak. 1978tik hona jaitsi eta jaitsi, ez dago besterik, azken aldixan egoeria nahiko egonkortu bada be. Zaila dakagu gora egittia, terrenorik be ez dakagu-eta horretarako.

1350	525	1930	12.874	1973	38.206	1996	30.314
1500	900	1934	13.431	1976	38.403	1997	29.758
1538	1.500	1937	9.126	1978	39.561	2000	28.942
1636	2.000	1940	11.772	1980	39.530	2001	28.711
1787	2.501	1945	13.823	1981	38.494	2002	28.513
1820	1.850	1950	16.318	1982	37.051	2003	28.182
1860	3.815	1955	23.636	1985	36.296	2004	28.006
1877	4.133	1958	27.789	1988	34.355	2005	27.784
1887	5.013	1959	30.000	1990	33.422	2006	27.530
1900	6.583	1960	31.725	1991	32.362	2007	27.404
1910	10.121	1965	35.617	1994	31.489	2008	27.496
1920	11.888	1970	37.073	1995	31.119	2009	27.419

Eibarko alkatiak (1931-2010)

Errepublikaldarrikatu zenetik hona

- 1931-34:**
Alejandro Telleria Estala
- 1934-36:**
Domingo Kortazar Giménez
- 1936-37:**
Alejandro Telleria Estala
- 1937-41:**
Jose González Orbea
- 1941-49:**
Justo Oria Gorostiaga
- 1949-55:**
Esteban Orbea Palacios
- 1955-58:**
Luis Palacios Montejo
- 1958-62:**
Javier Eguren Larrañaga
- 1962-67:**
Jose Hernando Alberdi
- 1967-73:**
Jose M^a Etxeberria Iraolagoitia
- 1973-77:**
Antonio M^a Iraolagoitia Orbea
- 1977-78:**
Juan Egia Sarasua
- 1978-79:**
Antonio Landa Mendikute
- 1979-83:**
Mikel Larrañaga Mandiola
- 1983-87:**
Jesus M^a Agirre Arriola
- 1987-93:**
Aurora Baskaran Martínez
- 1993-2008:**
Iñaki Arriola López
- 2008-10:**
Miguel De los Toyos Nazabal



Abuztuaren 16xan hil zan 1967tik 1973ra Eibarko alkati izandako Jose M^a Etxeberria Iraolagoitia Donostian.



Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan

- inplanteak eta hartz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisaling" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabetera arte

www.dentalaldaz.com




● Aldaz Hartz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu


Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

San Bartolome, 22 (Elgoibar) / Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

943 366 377



**Eibarko erdi aldera
etorri gara**



martitzenetik
barixakura
09.00-19.00
zapatuetan
08.00-13.00

TEL. 943 702024

**EGUERDIETAN
EZ DUGU
IXTEN**

Zboga

ESTILISTAK Ifar kale, 6

San Andres Parrokiaren aurrean

TEEN-
AUEA

Musika giro ederra izango da Naome eta Yasmin Souden etxean. Lau urteko aldea dute ahizpek, baina elkarrekin ondo konpontzen dira: batak bibolinarekin eta pianoarekin besteak, euren sortutako musika entzuteko aukera eskaini ziguten San Andreseko klaustroan uztailean izandako poema emanaldian. Naomeren hobya Yasminek goi mailako ikasketak bihurtu du.

YASMIN ETA NAOME SOUD, musikariak:

“Musikak eskatu eta eman egiten dizu”

- **Noiz hasi zineten musika munduan murgiltzen?**

Biak: Ez litzaziguke gustatuko inor ahaztea eta, horregatik, gure ibilbidea Musika Eskolarekin egin badugu ere, Casilda eta Sonia Alonsorekin hasi ginen. Gero, batek Maite Bilbatuarekin, besteak Belenekin... hainbat irakasle izan ditugu.

Yasmin: Gero, aurrera jotzean, Donostiara joan eta izen handiko Hungariako irakasle bi ere izan ditut.

- **Bide berriak jorratzekotan ere bazaudete, ezta?**

Naome: Gaur bertan gitarra elektrikoko klaseak hasiko naiz hartzen. Bibolinarekin urteak eman ditut eta banuen gogoa beste zeozerekin hasteko.

Yasmin: Ni ere orain bueltatu behar naiz Iruñeara, 2. ikasturteari ekiteko. Lau urte eta masteorra ditut aurretik musika munduan norbait izateko. Eta, pianoarekin batera, perkusioa ere eman izan dut, hiru urtetan.

- **Musikatik bizitzeko asmoa duzue, orduan?**

Yasmin: Pianoa amaitzeko asmoa badut, behintzat. Bai, gustatuko litzaidake.

Naome: Nik atzerriko hizkuntzak ikasten dihardut Eskoriatzan. Nire kasuan gehiago da hobya lanbidea baino.

- **Ordu asko sartu behar da aurrera egiteko?**

Yasmin: Serio hartuta eta, behetik jota, hiru ordu egunerok.

- **Zer da garrantzizkoena musikagitean?**

Yasmin: Instrumentua ondo jotzea; eta, baita, harmonia kontrolatzea ere.

Naome: Hala ere, badira taldeak musikan oso iaioak izan barik, berezko hori dutenak.

- **Izango dituzue burutik inoiz joango ez zaizkizuen kontzerturik, ezta?**

Naome: Metallicak deitu nau beti eta Iron Maiden ikusi nuen 16 urterekin... eta Muse! Baita bertako Filarmonika, Berlinen, harresia bota zutenean.

Yasmin: Langlang pianista ikusteko zortea izan dut Iruñean. Eta goi mailako opera Kurasaalen.

aek
www.aek.org

matrikula
zabalik



Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org

Gazteen aisialdiak euskeraz egiten du berba

Eguazten goizean aurkeztu zuten Portalean ikasturte honetarako aisialdirako eskaintza. Errota Gaztelekuak astelehenean zabaldu zituen ateak, oporrei agur esanda eta datorren astean, berriz, txikieneztat pentsatuta dagoen Afariketean egitasmoan izena emateko epea zabalduko dute.

Karmen kaleko Errota Gaztelekuak astelehenaz geroztik ohiko ordutegiari heldu dio: astelehenetik eguenera 18.00etatik 20.00etara zabalitzen dute, barixakuetan 17.00etatik 20.30etara eta zapatu eta domeketan 16.30etatik 20.30etara. Hala azaldu zuten Astixako Marisa Lapeirak eta Udaleko Euskara saileko Junkal Txurrukak eta M^a Jose Telleriak. Gazteleku berriaren beharrak “*martxa onean*” doazela azaltzearekin batera, Karmen kalekoan honezkerok hainbat jarduera prestatzeko beharrean hasita daudela gaineratu zuten. Errotara 12 eta 16 urte bitarteko gazteek jotzen dute, euren aisialdia betetzeko eskaintzen dizkien baliabideek erakarrita.

Afariketean

Baina gazteagoek ere badute aisialdia nola bete: Afariketean egitasmoa erabat finkatuta dago gurean eta, informazioa zabal-



Afariketean-en aurkezpenean Astixako Lapeyra eta udaleko Telleria eta Txurruka izan ziren. / SILBIA HERNANDEZ

tzeko eskuorriek diseinu berria estreinatu duten arren, eskaintza ohikoa izango da. DLHko 1. eta 2. mailako umeentzat astean egun bitan garatuko da (ordu t'erdi egun bakoitzean), euren auzoan. Eta Haur Hezkuntzako 3. mailakoentzat ere astean egun bi izango dira, baina saio laburragoetan. Dena dela, umei aisialdian euskeraz jarduteko aukera eskaintzea helburu duen programari buruzko informazioa ikastetxetan banatuko dute. Izena emateko honako egun hauek izango dira: irailaren 20an eta 21ean, 16.00etatik 18.00etara Arrateko Andra Mari ikastetxean, Errota Gaztelekuan eta Amañako ludotekan. Eta irailaren 22an, 23an eta 24an, 10.00etatik 13.00era, Portalean.

Inkestaren emaitzak

Euskara saileko arduradunek umeen euskalduntze prozesuan duten garrantzia azpimarratu nahi izan zuten aurkezpenean, batez ere iaz egindako azterketa baten emaitzak kontuan hartzen badira: “*Urte biko umeen gurasoen hizkuntza profila neurtzeko inkesta egin zen eta horietatik %48 etxetik erdera jakinda bakkarik eskolaratzen dela ikusi genuen. Bakkarik euskeraz jakinda eskolaratutakoak %36 ziren eta gainontzekoak (%16) elebidun ziren*”. Afariketean moduko programek “*umeeu euskeraz jardun dezaten aukera polita eskaintzen dutela*” uste dute arduradunek, “*askorentzat etxean jardutea zaila izaten baita*”.

GAZTE
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

BAMETSA

Toribio Etxebarria, 4

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

KILOMETROAK
Pasaia-Lezon
Urriaren 3an

Irteera
09.00etan -EgoGain-
Itzulera
19.00etan
8 euro

txartelak ...eta kitto!-n

AUTOBUSA **DAKAGU!!!**

Zelan ikusten dozu politikuak oparixak jasotzia?





ANDRES GARATE
(75 urte, jubilaua)
JUAN MARI NARBAIZA
(61 urte, bihargiña)

Txarto begintantzen jaku politikuak oparixak jasotzia. Euron biharra da eta horren trukian jasotzen daben soldatia nahikua da. Guri agindu eta, gaiñera, oparixak jaso? Danok egitten dogu lan soldata baten trukian eta oparirik ez deskue emoten.

M^a ANGELES ALBERDI
60 urte
garbitzaillia

Ez, oparixak jasotzia txarto dago. Egitten daben biharrarengaitik jasotzen dabe soldatia, eta ez txikia gaiñera. Guk ez dogu oparirik jasotzen, gure biharra soldatarekin ordaintzen da eta eura da holan izan biharko litzake.



CONCHI RODRÍGUEZ
67 urte
etxeoandria

Politikuek soldata edarrak izaten dittue ba, eta horrekin nahikua baiño gehixago dake. Horretaz gaiñ, ez dake zertan oparirik jaso. Nundik halakorik?

JAVI ESTEBAN
37 urte
mekanikua

Oparixak jasotzia ez jata ondo begintantzen. Egitten daben biharrarengaitik jasotzen daben soldatia ez da nolana nahikua; horrekin nahikua dakela uste dot.



altzariak.
menajea.
bainurako osagarriak.
ehungintza.
argiztapena.
opari pertsonalak.
osagarriak.
100 m²ko autozerbitzua

OKora eibar
Isasi, 18 943 53 12 59

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

BERRIA:
Foto-depilazio Unitatea

Eguraldia eta eibartarrak lagun izan genituen

Bezperan antolatutako Bertso Afariaren aurretik botatako euriak susto galanta eman zion ...eta kitto!ko lantaldeari. Gauean edo Arrate egunean eguraldiak izaten duen eragina oso handia dela guztiok dakigu eta aste osoan eguraldian adituek Arrate Eguna euripean pasatu beharko genuela esan eta esan zebiltzala kontuan izanda, are gehiago. Baina oraingoan eguraldian adituek ez zuten behar bezala aurrirak eguraldia eta eguazten benetan polita izan genuen. Goizean fresko, baina egunak aurrera egin ahala eguzkiak nabarmen irabazi zuen hordeien kontrakoa.



Hiru mila saritik gora zituen Kittonbolak, guztiak banatu nahian eta goizean goizetik txokoa atontzen ibili eta gero, goizeko hamarrak puntuan, Arra-

teko elizako kanpaiek lagunduta, saldu ziren lehenengo boletoak. Handik gutxira irten zen lehenengo opari handia, handia izan be benetan Alfako gosari kit-aren kaxa; pozarren joan ziren irabazleak. Jarraian boligrafoak, jamoiak, kamisetak, disko gogorak eta komunerako kitak, besteak beste...

Eta gutxika gutxika, batzuk jarraitu jokuak, besteek oparia, Kittonbolia hustea lortu genuen arratsaldeko 18etarako. Horregatik eskerrak eman behar ditugu, egunean 3.000 sariak banatu eta hankasartzeren bat ere izan genuen, baina horrek ere konponduko ditugu datozen asteetan.

EGUNEROKORAKO LAGUNTASUNA

Gaur egungo egoera ekonomikoa kontutan izanik, bereziki eman

behar dizkizuegu eskerak guztioi. Opariak eskaintzen parte hartu duzuen enpresa, komertzio eta dendei hasiteko, hurrengo orrietan dituzue horrek opariok eman dizkiguten guztien izenak. Horrek barik ezinezkoa izango litzateke sari kopuru hori ematea, beraz eskerrak asko, zuek ere bizitzen diharduzuen egoera gogorrean gurekin bat egin duzelako.

Eta Kittonbolan parte hartu zenuten guztioi eskerrak beroena. Gure egunerokotasunerako garrantzi handia du Kittonboliak eta aurrera jarraitzen, aldizkaria kaleratzen, hitzaldiak antolatzen eta gure abar luzean eragingo du zure laguntasun horrek. Arrate egunean gastatutako eurotxo horrek ematen du fruiturik. Guztion artean euskarak Eibarren bere lekua izan dezan.



Kittonbolia

KITONbolia

Arrate egunean, zuen ametsak errealitate bihurtu zituzten denda, enpresa eta kirol taldeak aurkezten dizkizuegu. Aukera paregabea izan zen Arrate egunean eta, euro baten truke, eibartar gutxi geratu zen sari barik.



Euskara Elkarte

- Alfa
- Ansa bitxitegia
- Artola jatetxea



- Askasibar
- Asegarce
- Aspe
- Astigarraga
- Athletic Club



- Ayerbe liburudenda
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Basik



- Batzokia
- Benicoba
- Burbujas y más

- Cadenas Iris



- Calefacciones Eibar



- Capi
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- E&M
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Kirol Elkarte/S.D. Eibar



- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- El Cantón de la Avenida



- El Casco
- El Corte Ingles



- Emankor taldea
- En boga ileapaindegia
- Eroski Ipurua
- Errebal kirolak
- Eskarne jatetxea
- Eslune
- Esteban Oroz



- ...eta kitto!
- Gar Men
- Gerritek



- Goien oinetakoak
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Hodei
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi

Eskerrik a

OSTALARITZA - VENDING

Zure zerbitzura

ostalaritza • enpresentzako •
erregistro eta gestio sistemak




Polonia Ekeberri 14-16 • EIBAR

Tel: 943 20 51 12

Fax: 943 20 17 64

urkotronik@urkotronik.com



- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- J.D Arrate
- Jauregui



- Jaz- Zubiaurre



- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia




- Kerala
- Ketesa
- Krabelin hotela
- Kros-sports
- Lakett
- Laumar loradenda

- Leder
- Lide
- Manpel
- Marian-Idoia spa
- Meka-Hotel
- Mega
- Mercasindo
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Narrua
- Neure
- Orbea



- Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Publiresa
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa



- Solera Estankoa
- Su Beroa
- Talleres AIBE
- Tribeka



- Trinkete



- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zahor




- Zero (J'etaime)
- Zurkulu

asko zuen laguntzarengatik

Arrateko Amaren Jaixak 2010

Bertso-afarixa



Arrateko jaixak hainbat ekitaldixekin disfrutatzen auzerria emon deskue. Hasi bezperako bertso-afarittik eta Arrate egun osuan egindako gauzeekin jarraituz. Egurdixa be lagun, jendiak gustora jarraitu zittuan dantzaldixak, kontziertuetan-eta dantzan parte hartu arte. Kofradixako Egunak emon zetsan azken agurra aurtengo Arrateko jaixeri.

Girua zelaixan



Arrateko dantzak



Jubilatuendako bazkarixa



Luhartzekin dantzan



Dantza-solte txapelketia



Prozesiñua



Paella-lehiaketia



Mahaixak beteta



“Beste dimentsio bat, zutikako aldapa gogorrekin”. Horrela deskribatzen dituzte Andeetako gainak uztailaren erdialdean Peruko lurretan izandako gure herriko mendizale biek. Esther Bilbatua eta Mertxe Agirre Marimendi taldekoek osatutako espedizioan izan dira eta ondo baino hobeto bete dute aurreikusitako hiru gainak betetzeko asmoa. Uztailaren 17an abiatu ziren hemendik eta abuztuaren 3an ziren bueltan.

Urte bitik behin aprobetxatzen du Marimendi emakumeen mendizale taldeak txango berezi bat egiteko eta aurtengoa hirugarrena izan da. Aurretik Mont Blanc-ekoa eta Elbrus-ekoa dituzte eginak; baita *“tarteak, Ararat-era, Dolomitetara eta hainbat tokitara egindako irteerak. Baina, horrelakoetan, talde moduan baino, bestelako irteera motak dira”*, dioskue Estherrek eta Mertxek, Marimendi taldeko eibartarrak.

Hiru gailur egin dituzte Andeetan, hori hango lurretan bizi den eta gidari izan zuten Aritza Monasterio elgoibartarrak *“euretako bat egitearekin pozik”* egongo zela zioenean. Baina, saiatuak izateaz gain, ondo prestatuta daude Marimendikoak eta, *“Ishinca lehenengo (5.530 m.), Urus gero (5.495) eta Pisco amaitzeko (5.742)”*, hirurak eginda bueltatu dira gurera.

Hasierak ez dira errazak izaten eta, *“abioian ia 12 ordu eman eta gero, autobusean ia beste hainbeste eman genituen Huarazera iritsi aurretik”*. Herri hori “Peruko Chamonix” modukoa bihurtu zen espedizio-arendako, bertatik abiatzen baitziren batera zein bestera.

Hiru gailur egun gutxiren barruan

Moctezumaren gaitza irten zitzaian pausora eta baita gorantziak eman ere, taldeko erdiak baino gehiago gastroenteritisak jota egin behar izan baitzieten aurre Ishincari. *“Baina denok izan ginen goian”*. Rapelatzea ere egokitu zitzaian azken fasean, *“launaka lotuta egindako igoeran”*. Beheko kanpalekutik *“Huascaran eta Tocllaraju ikustea zoragarria izan zen”*, gogoratzen du Estherrek.

Marimendi taldekoek 3. proiektua bete dute uztailean



MERTXE AGIRRE eta ESTHER BILBATUA

Moctezumari aurre eginez

Kanpalekuan bueltan, egun bateko *“atse-den aktiboa”* izan zuten. Eta, *“gainik egin gabe ere”*, aklimatazioa lehenbailehen euren-ganatzeko, 4.800 metroetara igo zuten. Urus mendia izan zen bigarren eronka: *“Aldapatsu baino piko gehiago, behetik begiratuta gaina non dagoen ere ikusten ez den horietakoa”*. Hasteko, hiru kilometro eta erdiko aldapari egin behar izan zioten aurre, harriz inguratutik. *“Gogorragoa izan zen, baina baita motzagoa ere: 9 ordu behar izan genituen igotzeko eta beste hiru jaisteko”*. Ishincan 12 eman zituzten igotzen eta beste lau jaisten.

Piscoren gailurra geratzen zitzaizen baka-rik. Estherrek *“gogorrena”* moduan deskribatzen badu ere, Mertxek *“nobletzat”* du. Azkenean, biek onartzen dute *“armonikoena”* izan zela eta, *“errodajeari ere eskerrak, goizeko ordubatean abiatu eta zazpirak laurden gutxiagorako gailurrean ginen”*.

Egun gutxitan hiru bost milako egin ondoren, behin motorrak berotuta, bertan proposatu zieten “69a” ere burutu zuten, Chacraracu lakua ikusteko parada eskaini zien azken mendi-bueltan. Hauek bai, hauek! Edozer kanpalekuan lotan lasai geratu aurretik!

Euren igoerak ordu gutxiagotan egin daitzkeela diote, baina *“soseguz, urratsak ziurtatuz”* egiteko aldekoak dira. Inguruko-
enen lana goraiatzeko dute: *“Bikain jardun zuten guztiak: gidari biek, lau gidarigaiek,*

Ia 6.000 metroko hiru gain egin dituzte Andeetan

astoekin zihoazenez, sukaldari biek... Horrelako egoeran ezin da janari hobearik prestatu: horiek bai benetako Arzak-ak”, diote biek aldi berean.

Paisaia zoragarrian pobrezia nagusi

Horrelako irteeretan tarteak ere aurkitzen dituzte, bisitatutako herrialdeak ezagutzeko aprobetxatuz. Pobrezia da nagusi euren oroitzapenetan: *“Batez ere, Lima hiriburua-
ren kasuan. Bertako kale printzipal biak eta kolonial itxurako plazoleta kenduta, handik irtenda, ezer ez dutela konturatzen zara, miserian bizi direla”*. Beste modu batean ikusi dituzte mendiko nekazariak: *“Azken hauen txirotasuna onargarriagoa da, integratuago daude inguruko naturarekin”*. Amaitu gabeko etxeak *“bukatutakorik aurkitzea zaila da”* eta duntetan egindako kilometro mordoko errepideak dituzte oraindik buruan.

40 urtetik gorako emakumeekin osatutako Marimendi taldeak indartsu jarraitzen du: *“Ia hogeit laguneko nukleoaren inguruan, batzuk laga eta beste berri batzuk sartu dira. Badaude gazteagoak ere sartzea nahiko zutenak... Pozik dihardugu. Eta sasoitsu!”*.

Martitzenean abiatu zen Pilota Eskola

AZKEN DENBORALDIKOARI JARRAITUZ, AURTEN ERE MARTITZEN ETA EGUENETAN IZANGO DITUZTE KLASEAK Pilota Eskolakoek, 17.00etatik 19.00etara. Belauneko lesiotik errekuperatuta, Jon Zubizarreta Klub Deportiboko pelotariak jardungo du monitore eta Eusebio Bengoetxea laguntzaile izango da berriro ere.



Deportiboko pilotariak aurreko domekan Arrateko frontoian. / MAIALEN BELAUSTEGI

Bestalde, Kluben Arteko txapelketa hasiko da asteburuan. Astelena obrak direla-eta, kiroldegian jokatuko dira torneo horretako partidukoak: gaur bertan, 20.00etan hasita, Zubizarreta-Unamunzaga Erretereriako ordezkarien aurka eta, jarraian, Egaña-Bengoetxea Antiguakoen aurka. Deportiboko bikoteak, behingoz eta ohikoaren aurka, bata aurrelariekin eta bestea atzelariekin daude osatuta. Domeka goizean Andonegi-Martín jubenil mailako bikotearen ordua izango da: Lazkaoko bikotearen aurka jardungo dute 11.00etatik aurrera.

Mendiko orientazio ikastaroak urrian

GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLAK ANTOLATUTA, MENDIKO ORIENTAZIO IKASTARO BI EGIN-GO DIRA datorren hillean: hasieran bat eta erdi aldean bestea: 2 eta 3ko asteburuan, ipar-orratzaren bitartekoa; eta 16 eta 17koan, GPS-ren bitartekoa. Ipar-orratzaren bitartekoa Irun eta Aiako harrietan egingo da eta mapen irakurketa eta ipar-orratzaren erabileraren bitartez mendian orientatzea du helburutzat; GPS-ren bitartekoa Andoaingo Adarran egingo da eta



bertan mendiko orientazioari GPSak ematen dizkion baliabide guztiak ezagutzea izango du ardatz. Bietan ere, gehienez 12 lagun onartuko dira. Prezioak 69 eta 63 eurokoak dira eta 21 urtetik beherakoek %65eko beka lortu dezakete.




Arratek Bartzelona hartuko du gaur Ipuruan 21.00etan

ALCOBENDASEN 27-NA BERDINDU ETA GERO, DENBORALDI OSOKO AURKARI ZAILENEKIN JOKATU BEHARKO DU ARRATEK ondorengo hiru jardunaldiotan. Bartzelona handia hartuko du gaur Ipuruan, gaueko 21.00etan hasiko den partiduan. Kataluniarrek nagusi izan ziren Torreviejaren aurrean (34-25) eta, Liga irabazteko hautagai sendoa denez, ez die ezer oparitu Julian Ruizen mutilei. Arraten Petrichev erdiko antolatzailea da zalantza handiena partidurako.

Zortzi fitzaketa mailari eusteko emakumeen foball Superligan

BIGARREN DENBORALDIA IZANGO DA AURTENGOA EIBARRENAKO SUPERLIGAN eta ikusita, aurrez iragarritakoaren aurka, oraingoan hainbat taldek maila galduko dutela, ia talde erdia aldatu behar izan du Eibar KE taldeak. Juan Carlos Iza entrenatzaile berriaren aginduetara, zortzi jokalar berri izango ditu taldeak, euretatik lau athletic-etik iritsita. Lehen jardunaldian, Lezaman irabazten hasi eta gero, 9-1 gal-

du zuten Athletic-ekin. Taldeak, batez ere, egitura egonkortzeari ematen dio garrantzia, jakinda urtariletik aurrerakoa izango dela erabakigarria azken lau postuei ihes egiteko lehian.



Urki emakume foball taldearen debuta

URKIKO INFANTIL MAILAKO FOBALL-8KO TALDEAK MUTRIKUN JOKATU ZUEN denboraldiko lehenengo partidua eta asteburuan Bergaran izango dute hurrengoa. Kostaldean jokatutako neurketan 2-1 nagusitu ziren, Laura eta Mariaren golekina. Zazpi dira taldeko jokalar berriak eta, hainbeste aldaketekin, beharrezkoa izango dute lehenbailehen taldera moldatzea.

IRATXE SARASKETA CÓFRECES X. URTEURRENA

“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa”

EZ ZAITUGU SEKULA INOIZ AHAZTUKO.

ZURE KUADRILA



Diana ehiza elkarteko lehia eta

AURREKO ASTEBURUAN JOKATU ZUTEN ZAMBRANAKO EHIZA-BARRUTIAN urtero egiten duten elkarte barruko lehiaketa, oraingoan eguraldi beroarekin, horrek sortzen dituen zailtasunekin animaliak aurkitzerakoan.

Jose Luis Gisasola izan zen irabazle garbia, zazpi eperrekin; Jose Fernández bigarrenak bost ehizatu zituen eta, kopuru berarekin, 3. postuan sailkatu zen Iñigo irabazlearen semea. Ereindako ehizatik bakarrik bi herenak harrapatu zituzten, txakurren lana asko zaildu zen egunean. Bihar, bestalde, txakurrarekin egindako ehiza-txikiaren eskualdeko txapelketa jokatu da toki berean, Debarrenako ehiztari onenekin. Diana ordezkatzeko, Alberto Vico, Anselmo Yanguas, Valentín Ostiategi eta Iñigo Gisasola izango dira, iaz lortutako txapela berriro Eibarrera ekartzeko.



47 atleta Simon Aldazabal sarian

EMAKUMERIK EZ ZEN IZAN IRTEERAN, BAINA PARTE-HARTZE BIKAINA BAI BESTALDE, jakinda egun berean beste lasterketa batzuk ere bazirela inguruan. Aipagarria da ere horietatik 39 herrikoak izatea: sasoia badago gure artean. Irabazlea, beste behin, Walter Becerra (Sestao) izan zen eta Iñaki Aldai, 7.a izateaz gain, herriko onena. 35 urtetik gorako onena Iñigo Unanue izan zen, 45 urtetik gorakoenen artean Jose Antonio Otxoa nagusitu zen, 55etik gorakoenen artean Juan Luis Azkonaga eta 65etik gorakoenetan Juan Jose Malvar. Omenaldia Ernesto Riañori egin zitzaion.

Eibar-Sporting B eguaztenean Ipuruan

ZAMORAN ASTEBURUAN JOKATU BEHARREKO PARTIDUAREN ONDOREN, datorren eguaztenean ligako jardunaldi berria jokatuko dute 2. B mailako taldeek eta Eibarrek Xixongo bigarren taldea hartuko du Ipuruan, 20.30etan hasiko den partiduan. Lizeranzuk entrenatzen duen Zamoran, bestalde, Eibartik aurten irteerako Etxaniz atzelariak jokatuko du zapatuan (20.00etan).



Foball-zaletuen denboraldia martxan


ATZO AURKEZTU ZUTEN KIROL-JOKOAK APUSTU-ETXEAN ASTEBURU HONETAN HASIKO DEN FOBALL-ZALETUEN DENBORALDI BERRIA. Etxe hori izango da aurtengo XXX. edizioaren babeslea eta, parte-hartzaileei dagokienez, 350 jokalaritik gora izango dira txapelketan, 14 taldetan banatuta. Asteburuko partidua honakoak izango dira: bihar, Areto-Alkideba eta Tanke-mans-Living (09.00etan biak), Tecnografik-Lanús (10.30etan) eta Sporting-Esmorga (12.00etan). Etzi, bestalde, honakoak izango dira jokoan: Txoko-Ekoden (09.00etan), Durango-XOK (10.30etan) eta JoserAuto-KOX (12.00etan).



Fco. JAVIER ARNAIZ SOLÓRZANO

(10.09.1949 - 20.07.2010)

**Ipuruako lagunak
eta Mendi Taldekoak
ez dugu sekula ahaztuko
zure zintzotasunaren irribarre hau.
Agur, betira arte!**





- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ELENA IZARRA URIARTE
ABOKATUA

helbide berria

Toribio Etxebarria, 5 - 1. B
elenizarra@hotmail.com
Tel eta faxa. **943 20 76 77**

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57



HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hortus, konpaleia eta konkritiko harrak... Hurdakako kontrol...

943 20 18 51

m bista eder



Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI

Hortz-Klinika
Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

RPS 04/02



IRAZABAL
clinica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

OSASUN

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta Fisioterapia

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egungoan, 6. behean - Tel.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia
izan nahi baduzu
deitu 943-206776
telefono zenbakira**



GGDA

Fisioterapia




ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
T.F.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa
Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA
Juan Gisasola, 14
Telefona: 943 12 70 78

Okulistak



Jose Alberdi Alberdi
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solainurtea
943 20 19 82



Clínica Oftalmológica RECALDE
Oftalmología Clínica
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
HELBIDE BERRIA
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48 EIBAR
943 203050
ERDIKO KALE 54 ARRASATE
943, 799746
PODOLOGOA
Erako Klinikak
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA
Maidor Lopez Etxebarria
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO T. ORTOPEDICO
Iñaki Rivero Zabaleta
Calbeton, 4 - 2. (Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----
Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta
- Afasiak - Dislexiak
- Disfoniak - Hizmoteltasuna
- Dislaliak - Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa
T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA
Arrate Garitaonandia
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO TRATAMENDUAK
Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@terra.es

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
Ψ
Oscar Mondragon Lili
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA
- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)
TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Coliseo antzokiko ikasturtea inauguratzen izango dugu Mikel Gaztelurrutia eibartar pianojolea, bere lehenengo albuma aurkezten: *The New Jazz Voices Ensemble* (Gaztelupeko Hotsak, 2009). Irailaren 24an izango da emanaldia, 20.30etan eta sarrerak 5 eurotan eros daitezke.



MIKEL GAZTELURRUTIA, musikaria:

"Publiko guztientzako emanaldia izango da"

- Zeintzuk izango dituzu aldamenen proiektu berriaren aurkezpen-kontzertuan?

Jaione Medina sopranoa, Nerea Erditu mezzosopranoa, Mikel de la Fuente tenorea eta Ricardo Lombardo baritonoa ahotsetan izango dira eta, horrez gain, Javier Callén kontrabajuak eta Vincent Thomas bateriajoleak ere jardungo dute. Proiektu honen ardatza ahotsa da, hori da berezitasuna aurrekoarekin alderatuz gero. Aurretik hirukotearekin beste proiektu bat landu nuen eta orain honekin probatzeko gogo nuen. Eibarrera etorri aurretik, bezperan Iruñean egingo dugu aurkezpena eta aurrerago beste emanaldi batzuk eskainiko ditugu. Bestalde, ETBrekin bideoklipa grabatu genuen eta datorren astetik aurrera hasiko dira ematen.

- Nolako emanaldia eskainiko duzue?

Oso proiektu melodikoa da, kolore askokoa. Izan ere, jazzetik abesti ezagun batzuk hartu ditugu, jazzetik kanporako beste batzuekin batera. Horrela, Setevie Wonderren abesti baten bertsioaren aldamenen Aita Donostiaren beste abesti batena aurkitu dezake entzuleak. Oso ezberdinak diren musikak bereganatu ditugu, ahotsen muestra bat eskaintzeko.

- Musika ikasteko orduan, zergatik aukeratu zenuen jazzaren bidea?

Ikasketa klasikoetan oso gauza interesgarriak daude, baina horien artean inprobisatzeko, interpretatzeko eta konposatzeko aukera ematen zidana jazz zen eta horregatik aukeratu nuen bide hori, eskaintzen didan erritmo ugaritasun eta aniztasunarengatik.

- Jazza entzuteko aurretik musika moeta horretan jantzia egon behar da?

Gure proiektua entzuteko oso erreza da, jazzarekin ohituta dagoenak ba abantaila izango du, baina jazzak ez dio goi mailako teknikari jarraitzen, tripetatik irtetzen den zerbait da eta jendeak eseri eta entzun, besterik ez du egin behar.

- Coliseoan aurretik ere izan zara, nola gogoratzen duzu esperientzia?

Oso oroitzapen ona daukat, 2007an izan nintzen eta esker-erak eman nahi dizkiet Udalari eta bertako J. L. González 'Poxpolo' teknikariari, baita bertan izan ziren Manolo eta Juan Luis-eri, dena oso errez jarri ziguten eta aretoko akustika ere oso ona da. Bestalde, nork esango zidan orain urte batzuk kioskokoan litxarrerriak erosi eta zinera joaten nintzen toki berean kontzertua emango nuenik!



Ikastolaren pausoen atzetik

JUAN ANTONIO MOGEL

IKASTOLA SORTU ZELA 50 URTE BETE DIRELA ETA, 50 URTE BETE DIRELA ETA, ospakizunek aurrera dira eta, horren harira biharko ekitaldi berezia antolatu dute "50 urte, 50 bide, 50 irudi" lelopean. Antolatzaileek azaldu digutenez, "sorreatik hona ikastola hartu izan duten 20 guneak ezagutzeko ibilbidea prestatu dugu. Goizeko 10.00etan hasi eta 12.00ak arte, guneetako bakoitzean arduradun bat egongo da, ibil-

bideari jarraitzen diotenek aldeztu aurretik erositako kartillan gometsa ipintzeko". Ondoren, Iturburun elkartzeko asmoa dute guraso, ikasle eta irakasleek, "gurasoek antolatutako tabernan zerbait hartu, Jainaga eta Ustekaberen musikaz gozatu, Dioni Kortina harrijasotzailearen eta Hodei Ezpeleta 11 urteko aizkolariaren erakustaldia ikusi, umeentzako jolasetan parte hartu eta etxetik eramandakoa jateko asmoarekin".



Hector Lapeyran argazkiak Topalekuan


ARRATE KULTUR ELKARTEAREN ERAKUSKETA ARETOAK IKASTURTEARI EKIN DIO: DOMEKARA ARTE Héctor Lapeyran argazkiak egongo dira ikusgai Topalekuan, ohiko ordutegian: astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta jai-egunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Bestalde, arazo teknikoak direla eta, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak iraileko antolatutako erakusketa biak ez dira oraindik zabaldu eta aurreikusitakoa baino beranduago zabalduko dituztela azaldu dute antolatzaileek.

Berbetan-ek euskararen boluntarioak behar ditu

EGUN GUTXI BARRU ABIATUKO DA EIBARREN BERBETAN EGITASMOA.

Euskara praktikatzeko mintzapraktika taldeek 9. ikasturteari ekingo diote urteroko helburuari eutsiz: euskaldun berri edo ia euskaldunek euskaraz berba egitea, euskaldun zaharren laguntzarekin. Hainbat arrazoiengatik (lotsa, beldurra edo inguruan euskaldunik ez izatea) euskaraz berba egiteko aukerarik ez dutenei, mintzapraktika taldeak eskaintzen dizkie ...eta kitto! Euskara Elkarteak, aste-aren behin ordubete inguru.

lazko ikasturtean 35 lagunek jardun zuten bost taldeetan banaturik, eta kopuru hori gainditzea da aurtengo helburua. Beraz, modu natural eta informalean euskaraz praktikatzeari eutsiz euskaldun berriek, hemen dute aukera. Euskararen normalizazioan euren aportazioa egin nahi duten euskaldun zaharrek ere zabalik dituzte ateak, euren laguntzarik barik ezinezkoa izango litzatekeelako egitasmoa aurrera eramatea. Izena emateko deitu ...eta kitto!-ra, 943200918 (Ainhua edo Maider).



Aurtengo kanpainarako zabaldu den kartela egun hauetan kaleratuko da.

Euskera ikasteko aukera berria

UDAL EUSKALTEGIAK ETA AEK-K IKASTURTE BERRIRAKO MATRIKULA EPEA ZABALDU DUTE


eta bietan ere maila guztietako ikastaroak eskainiko dira. Euskalduntze, alfabetatze, hobekuntza, mintzapraktika, hizkuntz perflak, ezarritako mailak... ematen dira. Hori guztia, gainera, ordutegi zabalean, klaseak goizez zein arratsaldean moldatzeko aukera dago eta. Udal Euskaltegian izena emateko epea hilaren 24an amaituko da eta AEK-n, bestalde, lau egun geroago, 28an.

Arrate izenekoak domekan batuko dira

AZKEN URTEOTAKO MARTXARI JARRAITUTA, ARRATE IZENEKOAK ELKARTU EGINGO DIRA, eguna jai giroan emateko asmoarekin. Aurtentzen 13. edizioa beteko duen bilkurak honezkero finantuta dauka egitaraua: "Animatuenak" 09.00etan



abiatuko dira Untzagatik, Azitainera oinez jaitsi eta Ama Birjinaren pausoetatik Arrateraino joateko. Gainontzekoekin Arraten bat egitean, hamarretakoarentzat tarte hartu eta jokoei ekingo diete. Berritasun gisa, aurtentzen denbora ematen badie pelota partidua jokatzea gustatuko litzatekeela azaldu digute antolatzaileek. 12.30etan meza izango da eta, ondoren, bazkaria Kantabria jatetxean. Bazkalostean dantzan jarduteko aukerarik ez da faltatuko eta, eguna biribiltzeko, etxerako bidea ere oinez egingo dute. Azken urteotan 50 bat lagun elkartu ohi dira, baina eguna ailegatu arte ezin jakin jendeak nola erantzungo duen. Norbait azken orduan animatuz gero, ongi etorria izango da.



RUFINA ALVAREZ PECIÑA

(2010eko irailaren 13an hil zen, 83 urterekin)

BETIRAKO GURE BIHOTZEAN

Etxekoen partez



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAX: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



laburrak

DANI GASCÓN GAUR BILBOROCK-EN

Bilboko Bilborock aretoan (Muelle de la Merced, 1) aurkeztuko du diskoa Dani Gascón kantautore eibartarrak, 22.00etatik aurrera. "Dentro de mí" izenburuko lanak 14 abesti biltzen ditu eta, horiek aurkezteaz gain, beste sorpresaren bat egongo dela aurreratu dute antolatzaileek. Sarrerak 8 euro balio du.

AINIZE TXOPITEA ZARAUZTEN

Hilaren 24atik aurrera eta urriaren 16ra arte Zarauzko Zazpi aretoak (Kale Nagusia, 21) Ainize Txopitea artistaren lanak hartuko ditu. Inaugurazioa 19.00etan izango da eta erakusketa bisitateko ordutegia, berri, 19.00etatik 20.30etara bitartekoa (astelehenetik zapatara).


INDALEZIO OJANGUREN LEHIAKETA

Indalezio Ojanguren argazki lehiaketak berritasuna dakar aurtengo edizioan eta, horrela, oraingoan 16 urtetik beherakoek aurkeztutako lanendako sari berri bat izango da. 23. edizioa da aurtengoa eta estatu osoko argazkilariak aurkezten dituzte euren lanak oihartzun handia duen lehiaketan. Lanak aurkezteko epea urriaren 8an itxiko da.

Beorlegiren 100 lan gaurtik aurrera Portalean

FERNANDO BEORLEGI ARTISTAREN LANIK ADIERAZGARRIENAK ERAKUSKETA BAKARRERAN BATZEA LORTU DUTE hainbatek, indarrak batuta, eta horri esker gaurtik aurrera Portaleko erakusketa aretoan 70 bat margolan ikus-teko aukera dago, hainbat eskultura, grabatu, marrazki eta bestelako materialekin batera. Mikel Beorlegi semeak eta Maria José Aranzasti erakusketaren arduradunak Miguel de los Toyos alkatea eta Ainhoa Zenigaonandia Kutxako ordezkaria izan zituzten aldamenean eguaztenean erakusketaren inguruan egindako aurkezpenean. Erakusketaren antolatzaileen berbetan, "aurretik, udan Zarautzen egon da ikusgai Beorlegiren lanaren zati bat eta aurrerago Lizarran beste erakusketa bat egongo da martxan, baina hau izango da hiru erakusketetatik osotuena duda barik. 30 bat bildumagileren artelanak batzea lortu du, tartean Kutxako bilduma osatzen duten hainbat artelan garrantzitsu. Partikular zein erakunde askori euren laguntza eskertu behar diegu".

Portalean batutako lanek Eibar eta inguruarekin zerikusia dutela argitu zuten aurkezpenean eta urriaren 12ra arte zabalik egongo den erakusketari laguntzen ikusentzunezkoa emango dute areto nagusian. Horrez gain, Garikoitz Araozak webgunea prestatu du artistaren bitzita eta obraren inguruko materialarekin (www.fernando



Mikel Beorlegi artistaren semea eta Maria Jose Aranzasti komisarioa dira erakusketako arduradunak. / MAIALEN BELAUSTEGI

beorlegui.com). Hilaren 22an, bestalde, Mikel Beorlegik eta Rafael Castellanosetik hitzaldia emango dute 19.00etan Portalean eta ekitaldi berean artistaren obraren katalogoa aurkeztuko dute. Eta urriaren 1ean Mikel Beorlegik aitaren lanak batzen dituen erakusketan bisita gidatua eskainiko du.

Kantabriako Etxea Bien Aparecida jaia ospatzeko prest

KANTABRIAKO ETXEAK URTERO SASOI HONETAN ANTOLATZEN DITUEN VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA jai-egitarauaren ekitaldi gehienak asteburu honetan pilatu ditu, aurreko



Piteros de Silió.


asteburuan Ronda de Tanos-eko (Kantabria) abesbatzaren kontzertuak egitaraua inauguratu bazuen ere.

Hala ere, txapelketak, bazkaria eta bestelako ekitaldiak bihar eta etzi artean garatzekoak dira. Zapatuan tute txapelketa jokatu da arratsaldean, Jardíñeta kalean elkarteak duen egoitzan eta iluntzerako erromeria antolatu dute Ipurua bolatokian. Gauean, berri, Duo Plaentxik, Piteros de Siliók eta Panderetas de Buelnak emanaldia eskainiko dute Kantabriako Etxean. Eta domekan meza eta bazkaria egingo dituzte. Jaiarekin amaitzeko, irailaren 25ean toka, igel eta aizto jokoan txanda izango da eta, urterokoari jarraituz, sardina-jana egingo dute Ipuruko bolatokian.




CONSUELO ARREGUI ILLARRAMENDI
(2010eko abuztuaren 27an laga gintuen, 89 urte zituela)

*Eskerrik asko, bihotz-bihotzez
zu bezalako ama, amama eta birramama
paregabea izan zaitugulako.*




laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MANEX, zure bosgarren urtebetetzian. Etxekuen partez.




Zorionak, XABIER, hillaren 10ian urte bi egin zenduazuen-eta. Aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.




Zorionak, LUCIA Lorizate, bixar zazpi urte egingo dozuz-eta, Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MADDI Gutiérrez Lete, aste honetan sei urte egin dozuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, ANE Arizmendiarieta, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Patxitua amatxo eta aitaxoren partez.



Zorionak, ANE Bordas, abuztuaren 24an sei urte bete zenduazelako. Aitta, ama eta Gorka eta Amaia lehengusu-lehengusien partez.




Zorionak, YURENE, domekan urte bi egingo dozuz-eta. Aitxitxa, amama, ama, izeko, osaba eta birramamaren partez.



Zorionak, ANER Amuategi (Arrate bizperan lau urte). Milla koloretako patxua, June, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, MALEN (bixar, 5 urte) eta INTZA (gaur, 3). Patxorik potoluenak, etxekuen partez.



AIMAR (6 urte) eta MALEN (9). Zorionak, bikote, eta muxu haundi bat. Gurasuen partez.



Zorionak, MIRIAM eta GORKA, bixar urtiak egingo dozuezelako bixok. Famelixaren partez.

JAIOAKOAK

- Eneko Meabebasterretxea Vega. 2010-VII-20.
- Hamza Hida. 2010-VIII-28.
- Irati López de Viñaspre David. 2010-VIII-30.
- Miren Errasti Joven. 2010-VIII-30.
- Martin Santamarina Pérez de Albeniz. 2010-IX-1.
- Tellu Zenarruzabeitia Aldazabal. 2010-IX-2.
- Itziar Gamero Etxeberria. 2010-IX-5.
- Gorka Telleria Sarasua. 2010-IX-8.

HILDAKOAK

- Modesto Arana Ariznabarreta. 85 urte. 2010-VIII-31.
- Manuel Díaz Calderón. 94 urte. 2010-IX-1.
- Eugenio Fernández Barruso. 77 urte. 2010-IX-1.
- Antonio Gallastegi Txurruka. 89 urte. 2010-IX-4.
- M^a Luisa Ferreras Gallego. 79 urte. 2010-IX-4.
- Eduardo Vicente Alonso. 71 urte. 2010-IX-4.
- Pilar Bartra Mujika. 98 urte. 2010-IX-5.
- Fulgencio Parada González. 85 urte. 2010-IX-5.
- Irene Blanco Hernando. 66 urte. 2010-IX-7.
- Manuel Fernández Martín. 87 urte. 2010-IX-7.
- Rosario Milikua Angiozar. 94 urte. 2010-IX-7.
- Salvador Marzana Amuategi. 92 urte. 2010-IX-7.
- Andresa Gantxegi Barrutia. 95 urte. 2010-IX-8.
- Dolores Mares Gil. 82 urte. 2010-IX-10.
- Pedro Agirreamalloa Kalzakorta. 82 urte. 2010-IX-10.
- Jose Olan Bergara. 87 urte. 2010-IX-11.
- Antonio Blanco Corral. 68 urte. 2010-IX-11.
- Luisa Villabella Aranguren. 87 urte. 2010-IX-13.
- Rufina Alvarez Peciña. 83 urte. 2010-IX-13.
- Angel Gómez Martín. 91 urte. 2010-IX-14.
- Miguel López de Gereñu. 47 urte. 2010-IX-15.

**BETI BARREZ
BETI LAGUNTZEKO PREST
INOIZ ESATEKO EZETZ.**

**Bizitzak alde egiten duenean,
oroimena gelditzen zaigu.
Zureak indarrak emango dizkigu
gure ametsei aurre egiten jarraitzeko.**

**Betirako izango zara
Eskozia la Bravako
zure lagun bihotzetan.**



MIGUEL LÓPEZ DE GEREÑU



Eskozia La Bravako kidea

horoskopoa

ARIES

Udan jairik jai ibili ostean gorputzari atsedean ematea tokatzen da orain. Saiatu ahalik eta gehien lo egiten.

TAURUS

Udako lige hori ahaztu ezinik zabilta, baina zuk badakizu momentuz ezinezkoa dela. Denborak erabakiko du.

GEMINI

Zer gertatzen zaizu Gemini? Barruan duzun hori baten bati kontatzea gomendatzen dizut, ez da horrenbestera eta!

CANCER

Nahikoa da. Berba besterik ez duzu egiten eta besteena ez duzu entzuten. Arnasa hartzeko besterik ez bada ere, ixildu.

LEO

Horrenbeste eguzki hartzea ez dela ona Leo. Ez al dakizu dena tamainan hartu behar dela? Probatu autobronzeadoreekin.

VIRGO

Inork baino gehiago ligatu duzu uda honetan eta oraindik ere sex-appeala topera! Asteburuan ere arrakasta izango duzu.

LIBRA

Nork esango zizun horrenbeste denboraz itxaroten egon zarena Arrateetan lortu zenuela. Orain aprobetxatzea tokatzen zaizu!

SCORPIUS

Ikasturte berria, look berria. Ilea moztu, janzkera berritu eta kalera! Denak aho zabalik lagako dituzu, zalantzarik ez.

SAGITTARIUS

Zu bai txapeliduna! Zuk uste baino hobeto zabilta-eta egunerokotasunaren erronkari aurre egiten. Segi horrela!

CAPRICORNIUS

Udan hain ondo pasa duzu, egunerokotasunak atzera botatzen dizula. Udazkenak ere baditu gauza onak, eta lasai!

AQUARIUS

Arraro samar zabilta azken aldian, amorratuta moduan. Norbaiti zerbait esan behar badiozu egizu lehenbailehen!


PISCIS

Aurreko astea gogorra izan zen zuretzat, baina hori atzean gelditu da eta aurrerantzean une goxoak biziko dituzu.

Zapatua 18

IKASTOLAREN 50. URTEURRENA

10.00.- "50 urte, 50 bide, 50 irudi" lelopean, ikastola hartu duten guneetatik ibilbidea. Amaiera Iturburun: Jainagak eta Ustekabek musikarekin girotuta, umeentzako jolasak, Dioni Kortina harrijasotzailea, Hodei Ezpeleta 11 urteko aizkolaria, bazkaria....

**AUTOBUSA**

16.00.- Aste honetako atxiloketen aurkako manifestaziorako. Donostian.

BIEN APARECIDA JAIAK

16.00.- Tute txapelketa (bazkideentzat). Kantabriako Etxean (Jardiñeta kalean).
20.00.- "Piteros de Silió" eta "Panderetas de Buelna" taldeekin erromeria. Ipuruako bolatokian.
23.00.- "Duo Plaentxi", "Piteros de Silió" eta "Panderetas de Buelna" taldeen emanaldia. Kantabriako Etxean (Jardiñeta kalean).




Domeka 19

ARRATE IZENEKOEN JAI

09.00.- Arrate izenekoen jaiaren XIII. urteurrena. Arratera igoera Untzagatik.

DYA-REN ATE IREKIAK

11.00/19.00.- DYaren ate irekien jardunaldia, adin guztietako jendearentzako jarduerekin. Txaltxa Zelaian.

**BIEN APARECIDA JAIAK**

12.00.- Meza. San Agustín elizan (Estaziño kalean).
13.00.- Piskolabisa.
14.30.- Bazkaria Eskarne jatetxean, "Piteros de Silió" eta "Panderetas de Buelna" taldeek girotuta.

Astelehena 20

AFARIKETAN

16.00/18.00.- Afariketana egitasmorako izen-ematea. Arrateko Andra Mari ikastetxean, Errota Gaztelekuan eta Amañako ludotekan.

ENKARTELADA

18.30.- Plenoaren aurretik enkartelada, Udalbiltzaren Aldeko Eibarko Babes Taldeak deituta. Untzagan.
19.00.- Udalbiltzaren gaineko mozioaren inguruko plenoa. Udaletxean.

Martitzena 21

AFARIKETAN

16.00/18.00.- Afariketana egitasmorako izen-ematea. Arrateko Andra Mari ikastetxean, Errota gaztelekuan eta Amañako ludotekan.




Eguaztena 22

AFARIKETAN

10.00/13.00.- Afariketana egitasmorako izen-ematea. Portalean.

HITZALDIA


19.00.- "Beorlegui, el dandi y el esperpento", Mikel Beorlegi eta Rafael Castellanosen eskutik (Aula de Cultura DV-ren babesarekin). Portalean.



Eguena 23

AFARIKETAN

10.00/13.00.- Afariketana egitasmorako izen-ematea. Portalean.



erakusketak

- Irailaren 19ra arte
HECTOR LAPEYRA-ren argazki rakusketa.
Topalekuan.
- Urriaren 12ra arte
"FERNANDO BEORLEGI: Gogoaren pintzelkada garratzak". Portalean.

ikastaroak

- **Sormenaren Potentziazioa (margolaritzan).**
Urritik abendura, astelehen eta martitzenetan,
09.30etatik 11.30etara Portalean.
Izen-ematea eta informazioa: 622053933 edo
943821353 telefono zenbakian.
- **Sukaldaritza natural eta energetikoa.**
Hasiera: Irailak 25 (8 modulo teoriko-praktiko).
Informazioa eta izen-ematea: 695780058 edo
943771670 telefono zenbakian (Jesús Romero).

lehiaketak

- **Asier Errasti Eibarko XI. laburmetraia jaialdia.**
Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.
Informazioa: www.planocorto.es, www.eibar.net
- **Indalezio Ojanguren XXIII. argazki lehiaketa.**
Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.
- **"Sanandresak 2010 Eibarren" kartel lehiaketa.**
Lanak aurkeztea: Urriaren 19ra arte, Pegoran.

farmaziak

- 17, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 18, zapatua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 19, domeka**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 20, astelehena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 21, martitzena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 22, eguaztena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 23, eguena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 24, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

diru-laguntzak

- **Umeak Eskolara.**
Eskeraur aurkeztea eta informazioa:
Abenduaren 1era arte, Pegoran.
- **Diru-laguntzak ikasleei.**
Eskeraur aurkeztea eta informazioa:
Abenduaren 1era arte, Pegoran.

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

	2			4	1	6		
7		1			9	8		
8	4		6	1				
		2				5		
				5	3		8	2
		4	1			7		3
		3	4	6			1	

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Saratsuegin. Logela bi. Ganbara eta garaje plaza bi. 3. pisua. Argitsua. Berria, sartzeko moduan. Tel. 647-720831.
 – Buhardila dotorea alokagai (erosteko aukera). Prezio interesgarria. 5. pisua, igogailurik gabe. Tel. 626-144098.
 – Pisua salgai Eibarko erdialdean. 130 m². 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igogailuarekin. Gutzitz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
 – Pisua salgai Mendaron. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. 150.000 euro, negoziagarriak. Tel. 943-700690.
 – Armagin kalean (Txaltxa Zelai ondolan) pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 675-700864.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Iparragirre kalean. Gela bi, egongela, sukaldea, komuna eta terraza handia. Altzariek. Tel. 687-090955.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 688-811385.
 – Gela alokagai Legarren (Eibarko erdi aldetik gertu). Kalefakzioa eta wi-fi. 275 euro, gastuak barne. Tel. 620-633434.

3. Motorra

2.1. Salgai

– Scooter CSR 125 motorra salgai. 3 urtekoa. 800 euro. Tel. 630-810099 eta 617-099029.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldea eta komuna-arekin. Tel. 669-293427.
 – Jubilazioa dela-eta, jatetxea traspasatzen da Eibarko erdigunean. Aukerako prezioan. Tel. 943-207019.

3.2. Errentan

– Kontsulta alokatzen dut astero hiru egunetan. Tel. 639-748114. M^a Jesus.
 – Garajea alokagai San Andres pasealekuan. Tel. 943-120308. Pili.
 – Lokala alokagai Elgoibarren, erosteko aukerarekin. 125 m². Lehen taberna izandakoa, soziedade bat egiteko edo biltegi moduan erabiltzeko egokia. Deitu 19.00etatik 22.00etara. Tel. 649-446716.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-910991.
 – Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 652-446228.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 645-719725.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-020180.
 – Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
 – Emakumea eskaintzen da pisuak edo bulegoak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 660-593523. M^a Karmen.
 – Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, banatzaile moduan eta garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 671-368324.
 – Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 636-284019.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-255458 eta 617-151688.
 – Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: umeak edo nagusiak zaindu... Tel. 669-688755.
 – Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 659-213249.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldean. Tel. 696-509360.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-514535.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 669-311385.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 656-493864.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Externa. Tel. 638-049409.
 – Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Klinika-laguntzaile titularekin. Tel. 646-384681.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-047847.
 – Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 682-188248.
 – Neska euskalduna eskaintzen da goizetan umeak zaindu eta eskolara eramateko. Tel. 696-369330.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-423898.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-471270.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-715805. Isabel.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari moduan. Tel. 626-946905.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari moduan. Tel. 690-134485.
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
 – Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 617-727744.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-234612.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-007271.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 680-223378.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta interna. Tel. 656-493864.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera moduan. Tel. 657-142376.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-014327.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, pegorak garbitzeko etabar. Tel. 689-617818.
 – Mutila eskaintzen da sukaldari edo biltegi laguntzaile moduan, tornoan zein fresadoran jarduteko etabar. Tel. 646-260220.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburuetan eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.
 – Mutila eskaintzen da baserrian laguntzeko, tabernan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-077316.
 – Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendan jarduteko. Tel. 630-410724.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-966611.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 629-994385.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-972690.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 636-172765.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein interna. Esperientzia. Tel. 680-674323.
 – Emakumea eskaintzen da, ingelesa eta italiara ezagutzekin, harreran zein farmazia laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 943-031441 edo 618-350922.
 – Mutila eskaintzen da elektrizista, igel-tsero edo sukaldari-laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 646-260220 edo 943-031441.
 – Mutila eskaintzen da baserri lanetan jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 686-077316.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.
 – Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. 15.30etatik 18.30etara. Tel. 647-044031. Marian.
 – Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 663-786976.

4.2. Langile bila

– Magisteritzan graduatutako unibertsitariaria behar da akademia batean laguntza-klaseak emateko. Tel. 627-763264. centrobart@gmail.com
 – Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Deitu bulego orduetan. Tel. 943-744584.
 – Pintorea behar da, 2. mailako ofiziala edo apendizita. Tel. 660-522587.
 – Neska behar da etxeko lanetarako. Tel. 943-203838.
 – Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.
 – Platerak garbitzeko norbait behar da asteburuetarako. Autoa beharrezkoa. Tel. 679-950907.
 – Ilepaindegirako 1. mailako ofiziala behar da. Esperientziarekin. Tel. 943-530000.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Irailaren 26an U-2k Donostian emango duen kontzerturako sarrera bi salgai. 168,5 euro bakoitza. Tokirik onenean. Tel. 656-768944.
 – Ohe artikulatua salgai. Ia berria. Tel. 666-062285. Rosa.
 – Edozein sehaskarako egokitutako umea aldatzeko salgai. 40 euro. Tel. 626-144098.
 – Bebe-konfort kotxe-kapazoa, aulkitoxa eta maxi-cosia salgai. Oso merke. Fundak (zakuak) eta burbuilak opari. Tel. 617-256466.

6.4. Bestelakoak

– Eibarko emakume batek lagunak nahiko lituzke paseatzera, zinera joateko etabar. Tel. 669-911573 eta 943-701642.



Tfnoa. 943 120108
Azitain Industrialdea, 3 - H



eraikuntzak

erreformak

igeltseritza

**EIBARKO AZOKAREN
ZOSKETA
IRAILAK
16-30**

HILEROKO ZOSKETA
25 €-ko 24 erosketa txartel
200 €-ko erosketa txartel bat

EIBARKO UDALA

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK